



ESTADISTIKA  
ORGANOA

ORGANO  
ESTADÍSTICO

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ENPLEGU ETA GIZARTE  
POLITIKETAKO SAILA  
*Zerbitzu Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE EMPLEO  
Y POLÍTICAS SOCIALES  
*Dirección de Servicios*

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

## ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2015eko 3. hiruhilekoa

*Emaita nagusiak*

*Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistikarako  
Organo Berezia*



## 1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

---

**Araban, 2015eko hirugarren hiruhilekoan, igo egin da obrarako emandako lizentzien kopurua, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bai 2014ko hiruhileko berdinarekin alderatuta. Gipuzkoan eta Bizkaian –2015eko bigarren hiruhilekoko kopuruak gainditzen ez badira ere– emaitzak hobetu egin dira 2014ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta.**

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistikak (EEEEBE) adierazten du 2015eko hirugarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek guztira 726 lizentzia eman zituztela obra handietarako. Emaitza horiek 2015eko bigarren hiruhilekoan erregistratu zirenak baino apalagoak dira (34 lizentzia gutxiago), hau da, % 4,5eko jaitsiera, gutxi gorabehera. Hala ere, aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta, 96 lizentzia gehiago onartu dira; hots, % 15,2 egin du gora.

Hiruhilekoan, Bizkaian eman ziren obra handiko lizentzien %51,7; guztira, 375 lizentzia. Ondoren, Araba dago: 201 lizentzia, kopuru osoaren % 27,7. Gainerako 150 Gipuzkoakoak dira, hau da, kopuru osoaren % 20,7.

Euskal Autonomia Erkidegotik Gipuzkoako Lurralde Historikoan ikusi da egon dela beherakada handiena obra handietarako emandako lizentzia kopuruan 2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean. Lurralde horretan, aintzat hartutako lizentziak % 9,6 jaitsi ziren aipatu epean. Bizkaian, emandako lizentzien kopuruak neurri txikiagoan egin zuten behera aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; zehazki, % 5,1. Araban, bestalde, aurreko hiruhilekoaren emaitzak zertxobait hobetu dira: % 1,0.

Gipuzkoako eta Bizkaiko lurraldeetan 2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean beheranzko joera izan arren, EAEko lurralde guztietan urtetik urterako eboluzio positiboa ikus daiteke emandako lizentzia kopuruan. Hala, 2014ko hirugarren hiruhilekoan eta 2015eko hiruhileko berean, Gipuzkoan handitu egin zen obra handietarako lizentzien kopurua: % 19,0ko igoera erlatiboa izan zen epe horretan. Bizkaian, igoera erlatiboa zertxobait apalagoa besterik ez da: % 17,9koa, hau da, 57 lizentzia gehiago. Araban, hobekuntza arinagoa da: 15 lizentziako igoera absolutua, hau da, % 8,1eko igoera erlatiboa.

***Oraindik ere birgaitzeko obrekin loturiko lizentziak dira nagusi, baina, urtetik urtera, Gipuzkoan igo egin da eraikuntza berrien lizentzien kopurua.***

2015eko hirugarren hiruhilekoan, emandako lizentzia-moten araberako banaketan, mantendu egin da aurreko hiruhilekoetan nabarmendutako joera. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obretarako lizentziak. Aipatutako hiruhilekoan, mota honetako lizentziek obra handien % 83,2 osatzen dute, hau da, % 14,9 eraikuntza berriko eraikinei dagokienez eta % 1,9 eraisteei dagokienez. Kopuru absolutuetan, birgaitzeko 604 lizentzia (2015eko bigarren hiruhilekoan baino 27 gutxiago, hots, % 4,3ko jaitsiera), eraikuntza berriko 108 lizentzia (9 lizentzia gutxiago, % 7,7ko murrizketa) eta eraisteko 14 daude.



2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoaren arteko epean, jaitsiera adierazgarria ikusten da Gipuzkoan birgaitzeko obretarako lizentzietan (-% 18,9); eraikuntza berrikoen kasuan, berriz, igoera deigarria (% 21,9). Araban, oso bestelako joera ikus daiteke: igo egin dira birgaitzeko lizentziak (+% 11,2), baina jaitsi egin dira eraikuntza berrikoei dagozkienak (-% 31,0). Bizkaian, bestalde, atzeraka ikus daiteke bi lizentzia mota horietan: -% 7,0 eraikuntza berriko obra handiko lizentzietan, eta -% 5,5 birgaitzeko obrei dagokienez.

2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean izandako eboluzioarekin jarraituz, Gipuzkoan izandako eraikuntza berriko lizentzien igoeraren ondorioz eta birgaitzeko lizentzietan izandako murrizketaren ondorioz, azken xede honetarako obrarako lizentziek askoz ere pisu erlatibo txikiagoa dute Arabarekin eta Bizkaiarekin alderatuta. Gipuzkoan, birgaitzeko obren lizentzien kopurua % 71,3koa da lurralde honetan emandako lizentzia guztietatik. Araban, % 84,1koa izan daiteke, eta Bizkaian % 87,5koa gehienez ere.

### 1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015eko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta ehunekoen arabera, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2015eko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	<b>Guztira</b>	<b>726</b>	<b>100,0</b>	<b>-34</b>	<b>-4,5</b>	<b>96</b>	<b>15,2</b>
	Eraikuntza berria	108	14,9	-9	-7,7	18	20,0
	Birgaikuntza	604	83,2	-27	-4,3	83	15,9
	Eraistea	14	1,9	2	16,7	-5	-26,3
Araba	<b>Guztira</b>	<b>201</b>	<b>100,0</b>	<b>2</b>	<b>1,0</b>	<b>15</b>	<b>8,1</b>
	Eraikuntza berria	29	14,4	-13	-31,0	0	0,0
	Birgaikuntza	169	84,1	17	11,2	19	12,7
	Eraistea	3	1,5	-2	-40,0	-4	-57,1
Bizkaia	<b>Guztira</b>	<b>375</b>	<b>100,0</b>	<b>-20</b>	<b>-5,1</b>	<b>57</b>	<b>17,9</b>
	Eraikuntza berria	40	10,7	-3	-7,0	0	0,0
	Birgaikuntza	328	87,5	-19	-5,5	57	21,0
	Eraistea	7	1,9	2	40,0	0	0,0
Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	<b>150</b>	<b>100,0</b>	<b>-16</b>	<b>-9,6</b>	<b>24</b>	<b>19,0</b>
	Eraikuntza berria	39	26,0	7	21,9	18	85,7
	Birgaikuntza	107	71,3	-25	-18,9	7	7,0
	Eraistea	4	2,7	2	100,0	-1	-20,0

Iurria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2015eko 3. hiruhilekoa



Are gehiago, urtetik urterako eboluzioaren datu erlatiboek adierazten dute Gipuzkoan birgaikuntzetarako lizentziek eboluzio okerragoa izan dutela. Lurrealde honetan, % 7 igo da mota honetako lizentzien kopurua, Araban, % 12,7 eta Bizkaian, % 21. Oro har, urtetik urtera birgaikuntzetarako emandako lizentzien kopuruak gora egin du % 15,9 EAE osoan.

2014ko eta 2015eko hirugarren hiruhilekoan ere igo egin da eraikuntza berrietarako emandako lizentzien kopurua (% 20), hau da, birgaikuntzei dagokien % 15,9 gaintitzen du. Hala ere, igoera hori Gipuzkoan besterik ez da gertatu (+% 85,7). Bizkaian eta Araban, berriz, lizentzien kopurua egonkor mantendu da (+% 0,0).

### **Urtetik urtera metatutako datuek adierazten dute EAEn emandako lizentzien kopuruak gora egin duela 2015eko hirugarren hiruhilekoan, bai eraikuntza berrietan, bai birgaikuntzetan**

2014ko laugarren hiruhilekoaren eta 2015eko hirugarren hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak zenbatuz gero, aurreko urteko hiruhileko berdinetan metatutako kopuruekin alderatuta (2013ko laugarren hiruhilekotik 2014ko hirugarren hiruhilekora), 241 lizentzia gehiago egon dira, hau da, alderatzen ari garen 2013-2014 epean baino % 9,6 gehiago. Igoera hori zertxobait handiagoa da eraikuntza berri obretan, zehazki, % 12,2ko igoera EAEn (47 lizentzia gehiago), eta % 9,3ko igoera birgaikuntzei dagokienez (193 lizentzia gehiago). Eraisteko berariazko obretarako emandako lizentzien kopurua ere igo egin da, 58tik 59ra.

Kopuru horiek 2015eko bigarren hiruhilekoan metatutako urtetik urterako datuekin alderatuta, aurkeztutako datuek adierazten dute urtetik urtera hobekuntzaren erritmoak behera egin duela. Birgaitzeko obretarako lizentzien kasuan, 2015eko lehen hiruhilekoan identifikatutako urtetik urterako igoeraren % 16,3tik 2015eko bigarren hiruhilekoan % 12,6ra eta hirugarrenean % 9,3ra igaro dira. Antzeko zerbait gertatzen da eraikuntza berrikoen kasuan: urtetik urtera metatutako kopuruaren hazkuntza-erritmoak behera egin du 2015eko lehen hiruhilekotik hirugarrenera: % 16,3tik % 12,2ra. Kasu honetan, ordea, 2015eko hirugarren hiruhilekoko kopuruak gorakada adierazten du 2015eko bigarren hiruhilekoan izandako % 10,7arekin alderatuta.

***Lurrealde ezberdinetan, 2015eko hirugarren hiruhilekoko datuek oro har adierazten dute aldeko dinamika dagoela, eta bereziki deigarria dela Gipuzkoan. Salbuespena dira Arabako eraikuntza berriko lizentziak, zertxobait okerrera egin dute eta.***

Lurrealde historikoetan urtetik urtera bildutako datuen analisiak adierazten dute EAEn hainbat dinamika daudela. Alde batetik, Gipuzkoan aurrerapen handia eta orokorra ikus daiteke azken urtean metatutako lizentzia-kopuruari dagokionez aurreko urteko epe berdinarekin alderatuta. Aurrerapena, batez ere, birgaikuntzan ikus daiteke, non % 37,9ko gorakada dagoen emandako lizentzien kopuruan, baina, era berean, eraikuntza



berriko lizentzietan gorakada esanguratsua egon da (+% 26,3). Lurralde honetan erregistratu da EAEn bi obra mota horietako igoyerarik handiena.

Oro har, lizentzien kopuruak % 33,6 egin du gora Gipuzkoan urtetik urtera (143 lizentzia gehiago eman dira). Kopuru horrek urteko bigarren hiruhilekoan erregistratutako urtetik urterako hazkuntzari eusten dio (% 33,6), eta goranzko joera du 2015eko lehen hiruhilekoarekin alderatuta (% 25,4).

Arabian, 31 lizentzia gehiago egon dira, eta horrek esan nahi du obrarako lizentzien % 4,4ko igoera dagoela urtetik urtera. Hala ere, alde nabarmenak ikusten dira mota bakoitzeko lizentzien bolumenaren eboluzioan. Urtetik urtera birgaitzeko lizentziak % 6,3 igo diren bitartean, eraikuntza berriko lizentzien kasuan, jaitsiera gertatu da emandako lizentzien kopuruan (-% 2,5). Hala, obrarako hiru lizentzia gutxiago eman dira 2013ko 2014ko epe berdinean emandakoekin alderatuta, 115 eta 118 lizentzia, hurrenez hurren. Murrizketa horrek esan nahi du 2015ean joera negatiboa dagoela: 2015eko lehen hiruhilekoan, +% 3,6 ikusi zen, bigarren hiruhilekoan, egonkor mantendu zen (+% 0,0) eta egungo eboluzioa negatiboa da, -% 2,5koa.

## 2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015eko 3. hiruhilekoan bildutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		4. hiruh. 2014 - 3. hiruh. 2015		4. hiruh. 2013 - 3. hiruh. 2014		Urtebetean metatutakoaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	<b>Guztira</b>	<b>2.756</b>	<b>100,0</b>	<b>2.515</b>	<b>100,0</b>	<b>241</b>	<b>9,6</b>
	Eraikuntza berria	431	15,6	384	15,3	47	12,2
	Birgaituntza	2.266	82,2	2.073	82,4	193	9,3
	Eraistea	59	2,1	58	2,3	1	1,7
Araba	<b>Guztira</b>	<b>730</b>	<b>100,0</b>	<b>699</b>	<b>100,0</b>	<b>31</b>	<b>4,4</b>
	Eraikuntza berria	115	15,8	118	16,9	-3	-2,5
	Birgaituntza	594	81,4	559	80,0	35	6,3
	Eraistea	21	2,9	22	3,1	-1	-4,5
Bizkaia	<b>Guztira</b>	<b>1.457</b>	<b>100,0</b>	<b>1.390</b>	<b>100,0</b>	<b>67</b>	<b>4,8</b>
	Eraikuntza berria	196	13,5	171	12,3	25	14,6
	Birgaituntza	1.235	84,8	1.197	86,1	38	3,2
	Eraistea	26	1,8	22	1,6	4	18,2
Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	<b>569</b>	<b>100,0</b>	<b>426</b>	<b>100,0</b>	<b>143</b>	<b>33,6</b>
	Eraikuntza berria	120	21,1	95	22,3	25	26,3
	Birgaituntza	437	76,8	317	74,4	120	37,9
	Eraistea	12	2,1	14	3,3	-2	-14,3

Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2015eko 3. hiruhilekoa


Bizkaian, bestalde, Arabian emandako lizentzien kopuruan (+% 4,8) baino igoera zertxobait handiagoa izan da. Birgaitzeko obretarako lizentziek ez dute ia igoyerarik izan (% 3,2 urtetik urtera). Kopuru hori zertxobait handiagoa da eraikuntza berrikoekin



alderatuta, non urtetik urtera % 14,6 ikusi den. Oro har, 67 lizentzia gehiago eman dira Bizkaian urtetik urterako datuetan.

Bizkaian, 2015ko hirugarren hiruhilekoan ikusitako metatutako datuek adierazten dute hazkundera nabarmen mantsotu dela igoera eraikuntza berrien kasuan: 2015eko lehen hiruhilekoan urtetik urterako % 31,4ko hazkundera erregistratu zen; urteko bigarren hiruhilekoan, % 18,1 eta hirugarrenean, % 14,6. Birgaikuntza-obrei dagokienez, berriz, % 19,6tik % 2,9ra jaitsi da lehen eta bigarren hiruhilekoen artean, eta hirugarrenean ez du ia aldakuntzarik izan (% 3,2).

### 1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historiko eta hiruhilekoen arabera EAE. 1998-2015



Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2015eko 3. hiruhilekoa



## 2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN

---

**Azken hiruhilekoan, murriztu egin dira obra handietarako lizentziak, bai bizitegirako lizentziak, bai bizitegirako ez direnak. Aurreko urteko hiruhileko berdinarekin alderatuta, jaitsi egin da bizitegirako ez diren lizentzien kopurua; bizitegirako obren jarduera, berriz, nabarmen hobetu da.**

2015eko hirugarren hiruhilekoan, obra handiko 712 lizentzia eman ziren. Horien xedea da oin berriko eraikinak eraikitzea edo lehendik zeuden eraikinak birgaitzea. Lizentzia horietako gehienak (506, hau da, guztizkoaren % 71,1) bizitegi-erabilerako proiektuekin lotu ziren, eta gainerako 206 lizentziak, berriz, bizitegi-erabilerarako ez diren proiektuetara<sup>1</sup>.

2015eko hirugarren hiruhilekoan emandako bizitegirako ez diren erabilerarako obren lizentzietan, sektoreko destinoei dagokienez, zerbitzuen erabilera bideratutakoak nagusitzen dira (kopuru osoaren % 69,4). Industriaren eta energiaren sektorera beste % 18,9 bideratu da, eta gainerako % 11,7 lehen sektoreko jardueretara.

Kontuan hartuta 2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean izandako eboluzioa, bizitegi erabilerarako proiektuekin loturiko emakidetan % 5,6ko murrizketa ikusten da. Jarduerak zertxobait gutxiago egin du behera bizitegi erabilerarako ez diren proiektuei dagokienez (-% 2,8).

Bizitegi erabilerarako ez diren lizentzien emakidetan 2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean murrizketa egon den arren, epe horretan zerbitzuen sektorean gora egin du emandako lizentzien kopuruak (% 7,5). Bestalde, lehen sektorean ikus daiteke okerrera egin duela; izan ere, % 35,1 murriztu da 2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean emandako lizentzien kopurua. Beherakada zertxobait motelagoa da industriaren sektorean, nahiz eta oraindik oso esanguratsua izan (% 7,1 jausi da).

2014ko eta 2015eko hirugarren hiruhilekoak alderatuz gero, nabarmen onuragarria da bizitegi erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 25,6). Bestalde, bizitegi erabilerarako ez diren proiektuetarako obren lizentzia-kopuruan jaitsiera arin bat ikus daiteke jardueran (-% 1,0). Beraz, horrek esan nahi du kopuruak behera egin duela 2015eko bigarren hiruhilekoan urtetik urtera (-% 0,5).

2014ko eta 2015eko hirugarren hiruhilekoaren artean bizitegi erabilerarako ez diren lizentziak emateko dinamika aztertuz gero, egiazta daiteke industriaren eta energiaren sektorean besterik ez duela gora egin (+% 8,3). Gainerako sektoreetan, aldakuntza negatiboak daude: zertxobait gutxiago zerbitzuen sektorean (-% 1,4) eta intentsitate handiagokoa lehen sektorean (-% 11,1).

---

<sup>1</sup> Txostenaren atal honetan egiten den analisitik kanpo geratu dira eraisteko obren lizentziak; izan ere, horiek ez dute inolako erabilerarik (eraikuntza ondoren egiten bada, lizentziaren eskaera berria izapidetu beharko da). Era berean, kontuan hartu behar da bi erabileratarako diren eraikuntzak (bizitegi-erabilera eta bestelakoa) bizitegi-erabileraren barruan sailkatzen direla.



### 3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2015eko 3. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2015eko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoareki ko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
<b>Guztira</b>	<b>712</b>	<b>100,0</b>	<b>-36</b>	<b>-4,8</b>	<b>101</b>	<b>16,5</b>
Bizitegiak	506	71,1	-30	-5,6	103	25,6
Bestelako erabilerak	206	28,9	-6	-2,8	-2	-1,0
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	24	11,7	-13	-35,1	-3	-11,1
- Industria eta energia	39	18,9	-3	-7,1	3	8,3
- Zerbitzuak	143	69,4	10	7,5	-2	-1,4

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2015eko 3. hiruhilekoa*

**Urtetik urtera metatutako kopuruei dagokienez, obrarako emandako lizentzien kopuruan hobekuntza egon da kasu guztietan, bai bizitegirako obretan, bai bizitegirako ez diren obretan.**

Eboluziorako perspektibak hobeak dira urtetik urtera metatutako adierazleei dagokienez. Hala, 2014ko hirugarren hiruhilekora arte metatutako urtetik urterako kopuruak alderatzean (2013ko laugarren hiruhilekotik 2014ko hirugarrenera), 2015eko hiruhileko berdinari dagozkion kopuruekin alderatuta (2014ko laugarren hiruhilekotik 2015eko hirugarrenera), datuek hobekuntza orokorra erakusten dute emandako lizentziei dagokienez. Zehazki, % 10,4 igo da bizitegi erabilerarako lizentzien kopurua; bizitegi erabilera bideratuta ez dagoen jardueraren proportzioa, berriz, % 8,3koa da.

### 4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2015eko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	4. hiruh. 2014 - 3. hiruh. 2015		4. hiruh. 2013 - 3. hiruh. 2014		Urtebetean metatutakoaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekiko	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
<b>Guztira</b>	<b>2.697</b>	<b>100,0</b>	<b>2.457</b>	<b>100,0</b>	<b>240</b>	<b>9,8</b>
Bizitegiak	1.923	71,3	1.742	70,9	181	10,4
Bestelako erabilerak	774	28,7	715	29,1	59	8,3
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	122	15,8	121	16,9	1	0,8
- Industria eta energia	172	22,2	132	18,5	40	30,3
- Zerbitzuak	480	62,0	462	64,6	18	3,9

*Iturria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2015eko 3. hiruhilekoa*



Bizitegi erabilerarako ez diren obretarako emandako lizentziei dagokienez, 2015eko hirugarren hiruhilekoan metatutako urteko datuek agerian uzten dute hobekuntza nabarmena egon dela jardueraren sektore guztietan emandako lizentzia kopuruaren eboluzioan. Lizentziak emateko urteko erritmoan ikus daiteke 2015eko hirugarren hiruhilekoan urtean metatutako kopuruak gora egin duela (+% 30,3). Beste sektoreetan ez dira horren igoera esanguratsuak egon: +% 3,9 zerbitzuen sektorean eta % 0,8 inguruko gorakada lehen sektorean. Bi sektore horietan, gainera, urtetik urtera metatutako igoera-erritmoan, beheranzko joera argia ikus daiteke: 2015eko lehen hiruhilekoan, % 12,5 lehen sektorean, eta % 39,7 zerbitzuen sektorean. Hazkuntza-erritmoa industria eta energiaren sektoreetan besterik ez da mantentzen, nahiz eta beherantz doan (% 34,1 2015eko lehen hiruhilekoan)

### **3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN ZIREN KONTUAN HARTUTA**

---

**Azken hiruhilekoan, okerrera egin du oin berriko etxebizitzaren nahiz birgaitzeko etxebizitzaren aurreikuspenak, Araban izan ezik, kasu honetan kopuru positiboak daude eta. 2014ko hiruhileko berdinari dagokionez, Gipuzkoa eta Bizkaia nabarmendu daitezke oin berriko lizentziek izandako joera negatiboan.**

2015eko hirugarren hiruhilekoan bizitegi erabilerarako obretara bideratutako obra handien 506 lizentziek, horiekin loturiko hainbat jarduera hartzen dituzte barne, guztira 862 etxebizitzatan (aurreko hiruhilekoan baino 426 gutxiago). Etxebizitza horietatik 643 oin berriko jarduketekin lotuta daude, eta gainerako 219 etxebizitza, berriz, birgaitzeko prozesuan daudenekin<sup>2</sup>.

Zehaztu behar da tartean dauden oin berriko etxebizitzaren bolumenean, hiruhilekoen artean, oszilazio esanguratsuak egon daitezkeela, hiruhileko batean edo bestean ematen diren sustapen kopuru handien arabera. Aipatutakoa aintzat hartuta, ordea, beherakada handia nabarmentzen da (-% 38,0) 2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean aurreikusita dauden oin berriko etxebizitzaren kopuruan. 2014ko hirugarren hiruhilekoaren kopurua 2015eko hiruhileko berekoarekin alderatzen bada, nabarmendu daiteke zertxobait behera egin duela, baina oraindik oso esanguratsua dela, zehazki, -% 10,2koa oin berriko etxebizitzaren aurreikuspenean.

2015eko hirugarren hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan, berriz, ez da horren egoera negatiboa ikusi. Hala, aurreikusitako ekintzen kopurua

---

<sup>2</sup> Komeni da zehaztea birgaitu beharreko etxebizitzak zenbatzean ez direla kontuan hartzen eraikin berean dauden etxebizitzak, baldin eta birgaitzeko obrak eraikineko elementu komunetan bakarrik egin behar badira. Birgaitu beharreko etxebizitzak zenbatzean, hauek bakarrik hartzen dira kontuan: osorik birgaitu beharreko eraikinak edo familiabakarreko etxebizitzak; edo zenbait etxebizitza dituzten eraikinak, baldin eta barruko tarte (etxebizitza) batean edo batzuetan egin behar badira birgaitzeko obrak (azken kasu horretan, kontuan hartzen da zenbat etxebizitza geratu diren, etxebizitzak banatzeko edo batzeko prozesuen ondorioz).



% 12,7 murriztu da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. 2014ko hiruhileko berdinarekin alderatuta, berriz, % 49,0ko igoera ikus daiteke.

Bizkaiko lurraldean dago jarduketa gehien aurreikusita 2015eko hirugarren hiruhilekorako: guztira 455 etxebizitza daude tartean, eta horietatik % 78,2 oin berrikoak dira (356 etxebizitza). Lurralde honetan, behera egin du oin berriko etxebizitzaren kopuruak, bai aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 15,0) bai 2014ko hiruhileko berdinarekin alderatuta (-% 23,3). Birgaitzeko lanetan sartzen diren etxebizitza kopuruari dagokionez, bolumenak behera egin du 2015eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (-% 25,6), baina hobetu egin da 2014ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta (% +54,7).

Gipuzkoan, bestalde, 2015eko hirugarren hiruhilekoan, 232 etxebizitzarako jarduketak aurreikusi dira. Aurreikusita dago oin berriko 173 etxebizitza eraikitzea. Perspektiba negatibo argia dago aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 70,5) eta beheranzko perspektiba zertxobait txikiagoa, berriz, 2014ko hiruhileko berdinarekin alderatuta (-% 19,2). Bestalde, birgaitzeko jarduerari dagokionez, 2015ko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean eginiko jarduketek pisua galdu badute ere (-% 6,3), hazkundera are esanguratsuagoa da urtetik urterako dinamikan (-% 31,1).

## 5. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra-motaren arabera eta lurralde historikoka. 2015eko 3. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. Aldakuntza absolutua eta ehunekoen arabera, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA		2015eko 3. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	<b>Guztira</b>	<b>862</b>	<b>100,0</b>	<b>-426</b>	<b>-33,1</b>	<b>-1</b>	<b>-0,1</b>
	Eraikuntza berria	643	74,6	-394	-38,0	-73	-10,2
	Birgaikuntza	219	25,4	-32	-12,7	72	49,0
Araba	<b>Guztira</b>	<b>175</b>	<b>100,0</b>	<b>88</b>	<b>101,1</b>	<b>99</b>	<b>130,3</b>
	Eraikuntza berria	114	65,1	82	256,3	76	200,0
	Birgaikuntza	61	34,9	6	10,9	23	60,5
Bizkaia	<b>Guztira</b>	<b>455</b>	<b>100,0</b>	<b>-97</b>	<b>-17,6</b>	<b>-73</b>	<b>-13,8</b>
	Eraikuntza berria	356	78,2	-63	-15,0	-108	-23,3
	Birgaikuntza	99	21,8	-34	-25,6	35	54,7
Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	<b>232</b>	<b>100,0</b>	<b>-417</b>	<b>-64,3</b>	<b>-27</b>	<b>-10,4</b>
	Eraikuntza berria	173	74,6	-413	-70,5	-41	-19,2
	Birgaikuntza	59	25,4	-4	-6,3	14	31,1

Iurria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2015eko 3. hiruhilekoa



Arabian, azkenik, 175 etxebizitzatarako aurreikusi ziren lanak. 2015eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoen artean aurreikusitako etxebizitza-kopuruan berreskuratzea dagoela ikus daiteke (% 101,1), zehazki, oin berriko eraikuntzetarako lanek gora egitearen ondorioz (% 256,3) eta neurri askoz ere txikiagoan, birgaitzeko lanekin loturiko etxebizitzengatik (+% 10,9). 2014ko hirugarren hiruhilekoarekin alderatuta, egoera antzekoa da: hobetu egin da birgaitzeko etxebizitzetarako eginiko emakiden aurreikuspena (+% 60,5), baina are kopuru handiagoan oin berriko etxebizitzetara bideratutako lanen kasuan (+% 200,0).

**Urtetik urtera metatutako kopuruei dagokienez, emaitzak hobetu egin dira EAEn. Gipuzkoan eta Bizkaian gora egin du oin berriko etxebizitzaren aurreikuspenak, nahiz eta joera beheranzkoa izan azken lurralde horretan**

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruen artean oszilazio esanguratsuak daudenez, komeni da analisia emaitzen urteko dinamikan oinarritzea. Hala, egiaztatu da bizitegi erabilerarako urteko lanetan, guztira, 4.047 etxebizitza daudela tartean 2015eko hirugarren hiruhilekoan. Horrek esan nahi du % 16,5 egin duela gora (573 etxebizitza gehiago) 2014ko hirugarren hiruhilekoan metatutako urteko jarduerari dagokionez. Hazkuntza hori, bereziki, etxebizitza berriekin loturiko lanen ondorioa da, tartean dauden etxebizitzetan % 13,2 igo baita (+370 etxebizitza). Birgaitzeko jarduketekin lotuta aurreikusitako jarduketek gorakada, portzentajeei dagokienez, handiagoa da (+% 30,7), nahiz eta balore absolutuetan txikiagoa izan (aurreikusitako lanetan 203 etxebizitza gehiago daude tartean).

Birgaitzeko lanen esparruan, EAeko hiru lurraldeek izan dute eboluzio ona. Arabako lurraldean egon da gorakadarik handiena (+% 44,9), eta jarraian Gipuzkoan (+% 27,1) eta Bizkaian (+% 26,9). Bizkaian ikusten da berreskuratu egin direla 2015eko lehen hiruhilekoan metatutako urtetik urterako hazkunde-erritmoak (% 27,3). Bigarrenean, ordea, % 17,1 egin du behera. Araban, oraindik ere dinamika positiboa da nagusi: 2015eko lehen hiruhilekoan, -% 13,1, bigarrenean, % 25,5 eta hirugarrenean, % 44,9.

Gipuzkoan ere indar handiz berreskuratu da birgaitzeko jarduera; izan ere, aldakuntza egon da urtetik urtera metatutako kopuruan: 2014ko bigarren hiruhilekoan 0tik hurbil, eta 2015eko hirugarren hiruhilekoan, +% 0,5; 2015eko hirugarren hiruhilekoan, berriz, % 27,1.

Diferentziak garrantzitsuak izan ziren, halaber, etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jardueretan. Kasu honetan, nabarmentzekoa da Araban jarduerak behera egin duela (-% 27,9) 2015eko hirugarren hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzetan urtetik urtera metatutako bolumenean 2014ko hiruhileko berdinarekin alderatuta. Kopuru hori zertxobait hobetu da, nahiz eta urteko bigarren hiruhilekoan urtetik urtera dinamika negatiboa ikusi (-% 43,7), hau da, lehen hiruhilekoan izandako mailetatik hurbil (-% 24,5).

Gainerako lurraldeetan, bestalde, hobekuntza nabaritu daiteke oraindik aurreko urtearekin alderatuta. Hala, Bizkaian % 9,9ko gorakada ikus daiteke, baina urteko 2015eko bigarren hiruhilekoan (% 18,9) eta lehen hiruhilekoan (% 20,3) erregistratu



ziren kopuruak baino txikiagoa. Gipuzkoan, bestalde, nabarmentzekoa da urtetik urterako metaketak gora egin duela (% 35,7). Kopuru hori 2015eko bigarren hiruhilekoan erregistratu zena (% 73,9) baino txikiagoa bada ere, oraindik ere kopuru altua da, eta urteko lehen hiruhilekoaren gainetik dago (% 31,8).

## 6. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra-motaren arabera eta lurralde historikoka. 2015eko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak

(Balio absolutuak eta ehunekoak. Urtetik urterako aldakuntza, balio absolututan eta ehunekotan)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA		4. hiruh. 2014 - 3. hiruh. 2015		4. hiruh. 2013 - 3. hiruh. 2014		Urtebetean metatutakoaren aldakuntza, aurreko urteko aldi berarekiko	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	<b>Guztira</b>	<b>4.047</b>	<b>100,0</b>	<b>3.474</b>	<b>100,0</b>	<b>573</b>	<b>16,5</b>
	Eraikuntza berria	3.183	78,7	2.813	81,0	370	13,2
	Birgaikuntza	864	21,3	661	19,0	203	30,7
Araba	<b>Guztira</b>	<b>490</b>	<b>100,0</b>	<b>540</b>	<b>100,0</b>	<b>-50</b>	<b>-9,3</b>
	Eraikuntza berria	290	59,2	402	74,4	-112	-27,9
	Birgaikuntza	200	40,8	138	25,6	62	44,9
Bizkaia	<b>Guztira</b>	<b>2.051</b>	<b>100,0</b>	<b>1.813</b>	<b>100,0</b>	<b>238</b>	<b>13,1</b>
	Eraikuntza berria	1.612	78,6	1.467	80,9	145	9,9
	Birgaikuntza	439	21,4	346	19,1	93	26,9
Gipuzkoa	<b>Guztira</b>	<b>1.506</b>	<b>100,0</b>	<b>1.121</b>	<b>100,0</b>	<b>385</b>	<b>34,3</b>
	Eraikuntza berria	1.281	85,1	944	84,2	337	35,7
	Birgaikuntza	225	14,9	177	15,8	48	27,1

*Iurria: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2015eko 3. hiruhilekoa*

Urtetik urtera metatutako datuen eboluzioa aurreko hiruhilekoetako datuekin alderatzen bada EAE osoan, perspektibek erakusten dute hazkunde hori ez aurrera ez atzera geratu dela. Hala, egiaztatu da lanak aurreikusita dituzten etxebizitzaren kopurua igo egin dela: 2015eko lehen hiruhilekoan, 3.639ra iritsi da, eta urte bereko bigarren hiruhilekoan, 4.048ra, eta. hirugarren hiruhilekoan erregistratutako datuak oso antzekoak izan ziren (4.047 etxebizitza). Horrek esan nahi du aintzat hartu diren azken bi hiruhileko horien artean tartean dauden urteko etxebizitzaren aurreikuspenetan % 0,0ko aurrerapena egon dela. Horrenbestez, jardueraren erritmoak nabarmen egin du behera, 2015eko lehen eta bigarren hiruhilekoetan (+% 1,9 eta +% 11,2 hurrenez hurren) eginiko etxebizitza berrien aurreikuspenetan metatutako urteko kopuruaren eboluzioarekin ateratzen zen kopuruarekin alderatuta (aurreko hiruhilekoan ikusitako urteko kopuru metatuarekin erkatuta).



## ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKAK (EEEBE), 2015eko 3. hiruhilekoa

### EMAITZA NAGUSIAK

#### AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK .....	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN .....	7
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN ZIREN KONTUAN HARTUTA .....	9

#### Taulen aurkibidea

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015eko 3. hiruhilekoa .....	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra-motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2015eko 3. hiruhilekoan bildutako urteko datuak .....	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2015eko 3. hiruhilekoa .....	8
4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2015eko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak .....	8
5. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra-motaren arabera eta lurralde historikoka. 2015eko 3. hiruhilekoa .....	10
6. taula. Aurreikusitako etxebizitza-kopurua, obra-motaren arabera eta lurralde historikoka. 2015eko 3. hiruhilekoan metatutako urteko datuak.....	12

#### Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historiko eta hiruhilekoen arabera EAE. 1998-2015 .....	6
--	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estadistika Organo Berezia

Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945 019 357 Faxa: +34-9450 16 340

WEBGUNEA: <http://www.euskadi.eus/r41-ovse122x/eu/>

Helbide elektronikoa: [estadistica-eps@euskadi.eus](mailto:estadistica-eps@euskadi.eus)